

# AUSARDIA

EMOZIOAK LANTZEN

Arrisku eta zailtasunei aurre egiten dakigunean.

**Aukeratu** zein egoerataz senti dezakegun hori, hiru erantzun dira egokiak:

Batek ondokoari mina egiteko asmoz iseka egiten dionean.

Beldurra gainditzeko gai garenean.

Zailtasunei aurre egiten diegunean

Indarkeria erabiltzen dutenei indarkeriarik gabe aurre egiten diegunean.

Gehiegi larritzen garenean.

Lagun batek kasu egiten ez digunean.

## AUSARTEN TALDEA

Haur guztiek txalotu eta Samueli esaten zioten:

-Aupa! Oso ongi Samuel! Indartsuena zara!

Eta Samuelek horrelakoetan besoak altxatzen zituen irabazle gisa. Alan aldiz, lurrean zeharo beldurtuta eta ezpainak odoletan zituela zegoen.

Samuelek uste zuen dena indarra erabiliz konpon zitekeela; izan ere, bera, gainontzekoak baino handiago eta indartsuagoa zen.

Norbaitek kontra egiten zioenean, muturrekoa emateko mehatxu egiten zion.

Berak esandakoa betetzen zuten gehienek, beldurra baitzioten. Baina hau ez zen Alanen kasua, ez baitzuen erraz amore ematen. Jolasgaraian Samuelek otartekoa eskatu zioenean, honek ez zion eman. Orduan, gelako harroputzak otartekoa kendu, bultza egin eta bere mutur aurrean jaten hasi zen.

Alan, oraindik, lurrean zegoen Agustin irakaslea hurbildu zenean:

-Zer gertatzen ari da hemen? -galdetu zuen.

-Ezer ere ez irakasle, borrokatxo bat -erantzun zuen mutiko batek.

-Nor hasi da? -ea Alan -esan zion altxatzen laguntzen zion bitartean. -Nork jo zaitu?

Alan isilik geratu zen, bere buruari galdezka irtenbide bat bilatu nahian. Baina, ez zekien zer egin: egia esaten bazuen, Samuel berriro ere aurrez aurre izango zuen eta oraingoan, gainera, eskolatik kanpo, inoren babesik gabe.

Borroka berak hasi zuela esaten bazuen, kolpeaz gain irakaslearen zigorra jaso zezakeen eta agian gurasoei zuzendutako oharra. Isilik geratuz gero, denen aurrean barregarri geratuko zen eta gezurra esan ziolako irakaslea haserretuko zitzaion.

Beraz, Alanek arazoa zuen, arazo latza gainera.

- Garrantzirik gabeko borroka besterik ez da izan, irakasle.
- Bada, esango didazu zer egiten duzun lurrean, ezpainetik odola darizula.
- Samuelek nahi gabe bultza eta erori egin naiz.

Irakaslea ez zen batere konforme geratu azalpenarekin, baina, ez zuen ezer gehiago galdetu eta ikasleak gelara bidali zituen.

Alanek denen ahotik isilpeka entzun behar izan zuen:

- Kakatia, oilo bustia, babalorea !

Minduta egon arren, ez zuen txintik ere esan eta gertatutakoa lehenbailehen ahazten saiatu zen.

Eskolatik etxerako bidea oinez egin zuen burumakur eta pentsakor, norbait atzetik zetorkiola konturatu gabe.

- Kaixo arratsaldeon Alan - esan zion neska batek irribartsu.
- Nor zara zu? Ez zaitut ezagutzen, nola dakizu nire izena?
- Nala naiz eta zuri buruz dena dakit. Alan aho zabalik neskari begira geratu zitzaion, honek esaten zuena ulertu gabe.
- Ni urrutiko herri magiko batean bizi naiz eta zure beste aldea naiz. Herri horretan denek ezagutzen zaituzte, Alan.
- Herri magiko horretan, denek ezagutzen nautela diozu? Ez dut ezertxo ere ulertzen.



- Nahi baduzu azalduko dizut.
- Entzungo dizut,dena kontatu.-eskatu zion Alanek.
- Nire herrian Ausarten errege deitzen dizute, denei aurre egiten diezulako indarra erabili gabe.

Alanek burumakur esan zion Nalari:

- Baina orain ez naiz ausarta. Gaur gelako mutil batek nire ogitartekoa eman ez diodalako jo egin nau eta ez dut nire burua babesten jakin izan.
- Agian jo zaituen mutila koldarra da eta indarra erabiltzen du beldurra duelako.
- Samuelek beldurra? Zuk ez duzu ezagutzen,...
- Bai Samuelek indarra erabiltzen badu, zuek ikaratu eta urrun mantentzeagatik egiten du, izan ere Samuel zuen beldur da. Ez al duzu ala uste?
- Beno, horrela begiratuta, agian arrazoi duzu.
- Gaur zuregana etorri naiz , nahiz eta zuk horrela ez uste, zure barruan ausardia duzula gogorarazteko. Ez ahaztu Ausarten Errege deitzen dizutela.

Alanek eta Nalak hizketan jarraitu zuten etxerako bidean.

- Berriz ikusiko zaitut ? Oso interesgarria da kontatu didazun hori.
- Berriro ere elkarren berri izango dugu...- Bat-batean arrastorik utzi gabe desagertu zen.

Alanek hau guztia ametsa izan zela pentsatu zuen, baina amak etxean sartzean, neskari buruz galdetu zionean konturatu zen gertatutakoa ez zela ametsa izan.

Hurrengo egunean, gelara joan zenean plan bat zuen buruan Alanek: Samuelek maiz zirikatzen zituen gelakide batzuekin hitz egin zuen eta honela esan zien:

-Samuel bakarra da eta gu,aldiz, asko gara; beraz, gutako batekin sartzen den bakoitzean denok aurrez aurre izango gaitu. Zer deritzozue?

-Primeran eta denon artean eskarmentu ederra emango diogu, jipoi galanta.

-Ez, ez dago jo beharrik, denok elkartuta ikusiz gero ez da ausartuko; azken batean beldurra digu. Honekin ados bazaude taldea osa dezakegu, Ausarten taldea. Zer diozue?

Denak ados ziren eta ondoren taldea ezagun egingo zuen armarrria sortzeari ekin zioten, Antzinako Zaldunen gisa.

Ausarten taldea egunetik egunera hazten ari zen bitartean Samuel bakarrik geratzen hasia zen, taldeko bazkide izateak abantaila ugari baitzituen: babes, lasaitasuna,...

Aurrerantzean bakean utzi zituen.

Alanek ez zuen Nala inoiz ahaztu eta oraindik ere egunen batean etorriko delakoan dago.

# Erantzun ondorengo galderak:

- Samuelen antzeko neska-mutilik ezagutzen al duzu? Zein da bere jarrera?
- Kideekin egunerokoan, nola jokutzen duzu? Zuk nahi duzuna egiten duzu edo beste batek agindutakoa egiten duzu?
- Zure ustez: Alan ausarta al da? Zergatik?
- A zer buruhaustea izan duen Alanek irakasleak zer gertatu den galdetu dioenean. Zuk egoera horretan, zer erantzungo zenuke?
- Nor da Nala? Zer dela eta agertzen zaio?
- Ausarten taldea osatu izanari zer deritzozu?